



### **Lanaren nondik norakoak:**

- Ur tanta bat protagonista duen ipuin original bat idatzi behar duzue elkarlanean. Ipuinak tanta horren bidaia osoa kontatuko du naturagunean zehar, uraren zikloaren fase guztietatik igaroz (lurrunketa, kondentsazioa, prezipitazioa, iragazketa, ibaietan jariatzea, akuiferoetatik jariatzea, ebapotranspirazioa). Eman izen bat ur-tantari eta "nortasun" bat.
- Tantak "ikusten" edo "esperimentatzen" dituen parkeko leku, landare edo animalia erreal eta bereizgarrien deskribapenak edo aipamenak jaso behar ditu ipuinak.

### **Jarraitu beharreko urratsak:**

- Idatzi eta erabaki uraren zikloko faseak zer ordenatan jarraituko dituen protagonistak, faserik ahaztu gabe.
- Idatzi naturaguneko zer leku erreal, zer landare bereizgarri edo zer animalia bereizgarri nahi duzuen parte hartzea. Erabaki zer lekutan hasiko duzuen bidaia (naturaguneko ibai batean, urmaelean, itsasoan, landare baten barruan, airean...)
- Handik aurrera, zer "abentura" edo "topaketa" izan ditzake tantak? Adibidez: orkatz batek edana izatea, sai baten lumajetik irristatzea, uhandre bat putzu batean ikustea... Zirriborratu labur-labur zer gertatuko den zati bakoitzean.
- Hasi idazten, ipuinak hasiera eta amaiera egoki bat izan behar duela ahaztu gabe. Horretarako, rolak esleitu eta idazketa kooperatiborako teknika bat aukeratu. Erabili dokumentu partekatu bat, denek ikusi eta ekarpenak egin ahal izateko. Saiatu estiloa koherentea izan dadin. Irakurri ozenki idazten ari zaretena.
- Erabili egitura egokia. Zaindu ipuinaren sarrera eta amaiera.
- Ipuina osatuta dagoenean, irakurri ipuin osoa elkarrekin.
- Egiaztatu uraren zikloa osorik dagoela eta zuzena dela.
- Egiaztatu parkeko elementuak modu integratuan aipatzen direla.
- Deskribapenak, ortografia eta gramatika zuzendu eta hobetu. Kontsultatu ebaluazio-errubrika une oro.

- Lehen zirriborro bat amaitzean, erakutsi irakasleari.
- Behin betiko testua amaitzean, audioa grabatu, taldekide guztien parte hartzearekin. Erabaki nork irakurriko duen alderdi bakoitza. Paragrafoak bana ditzakezue, edo narratzaile nagusia bat izatea eta beste batzuek "ahotsak" edo efektuak egitea, bururatzen bazaizkizue.